

Año LII. urtea

130 - 2020

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Galdera partikulak euskaraz

Sergio MONFORTE

Galdera partikulak euskaraz

Partículas interrogativas en euskara

Question particles in Basque

Sergio MONFORTE

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

sergio.monforte@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0003-1995-6355>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv.130.2>

Lan hau Monforteren (2015) Master Amaierako Lanean oinarrituta dago. Esker onak eskaini nahi dizkiet berrikusle anonimoei, euren oharrek artikulu hau hobetzen lagundu baitidate. Halaber, Xabier Artiagoitiari eskertu nahi diot lan honetan ez ezik, master amaierako lanean ere eskainitako laguntza. Ikerketa hau Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak diruz lagundutako PGC2018-100686-B-I00 «Euskarazko zenbait partikula funtzionalen azterketa (modala, ezezkoa, konplementatzailea)» izeneko proiektuaren parte da. Akats guztiak nireak dira.

Jasotze data: 2019/03/13. Behin-behineko onartze data: 2020/05/26. Behin betiko onartze data: 2020/05/28.

LABURPENA

Lan honetan ekialdeko eta erdialdeko hizkerek polaritatezko galderetan erabiltzen dituzten partikulak aztertzen ditut ikuspuntu sintaktiko batetik: ekialdekoa (-a) Jokatusun buruan kokatzen dela eta erdialdekoa (al) Denbora Sintagmaren eta Konplementatzaile Sintagmaren arteko Partikula Sintagmaren buruan kokatzen dela proposatzen dut. Ondorio horretara heltzeko, hainbat ebidentziatan oinarritu naiz: a) beste partikulekin ager daitezke?; b) isiltzen dira DenbS-ren elipsiaren ondorioz?; eta, azkenik, c) zehar galderetan erabil daitezke? Datu tipologikoek indartzen dute -a eta al partikulak kokapen berekoak ez direlako hipotesia; KonpS eremuko eta DenbS eremuko partikulak dira, hurrenez hurren.

Gako hitzak: sintaxia; galdera partikulak; mikroaldakortasuna; tipologia.

RESUMEN

Este artículo propone un análisis sintáctico separado para las partículas interrogativas -a y al en euskera, propias de preguntas de polaridad. Sostengo que la primera, utilizada en los dialectos orientales, es el núcleo de S_{Finite} y la segunda, usada en el dialecto central, ocupa la cabeza del Sintagma Partícula entre ST y S_{Comp}. Este análisis se basa en las siguientes evidencias: a) el comportamiento con las otras partículas; b) el comportamiento tras la elipsis de ST; y, finalmente, c) el uso en oraciones subordinadas. Este análisis para las partículas interrogativas también se encuentra translingüísticamente, habiendo partículas generadas en la periferia izquierda y la denominada *middle field*.

Palabras clave: sintaxis; partículas interrogativas; microvariedad; tipología.

ABSTRACT

This article proposes separate syntactic analyses for the question particles -a and al in Basque, which occur only in polarity questions. I argue that the former, used in eastern dialects, is the head of FiniteP and that the latter, used in the central dialect, occupies the head of Particle Phrase located between TP and CP. I provide the following evidence in support of this dual analysis: a) their behaviour with the other particles; b) their behaviour regarding the elipsis of TP; and, finally, c) their use in embedded clauses. A separate analysis for question particles is also found crosslinguistically; they are particles base-generated in the middle field and left periphery.

Keywords: syntax; question particles; microvariation; typology.

1. SARRERA. 2. BESTE HIZKUNTZA BATZUETARAKO PROPOSAMENAK. 3. PARTIKULA MODALAK: EZAUGARRI SINTAKTIKO OROKORRAK. 4. GALDERA PARTIKULEN ANALISIRANTZ. 4.1. Ekialdeko partikula: *-a*. 4.2. *al* partikula. 5. GALDERA PARTIKULAK EUSKALARITZAN: AURREKO AZTERBIDEAK. 5.1. Partikularen besarkaduraz. 5.2. Arazo morfosintaktikoak. 6. HIPOTESI BERRI BATERANTZ. 6.1. Polaritatezko galderen azterketa. 6.2. *al* galdera partikularen azterbide berria. 6.3. Ekialdeko *-a* galdera partikularen hipotesi berrirantz. 7. ONDORIOAK. 8. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Artikulu honetan zehar euskarazko *-a* eta *al* galdera partikulen sintaxia aztertzen dut Gramatika Sortzailearen ikuspegitik; horrek esan nahi du ez dudala euren interpretazioa ikertuko¹. Dena den, partikulen lanetan ohikoa den bezala, euren erabilera gaingiroki emango dut aditzera, analisi sintaktikoa argitzen laguntzen duen heinean. Hona hemen partikula horien adibide bana:


- (1) a. Ezkontüik hiza? (Zalgize)
b. Ezkonduta altzea? (Beasain)

Partikula horiek eremu geografiko desberdinetan erabiltzen dira; alabaina, antzeko funtzioa identifikatu zaie (*cf.* Euskaltzaindia, 1987). Ideia horretatik abiatuta, gune sintaktiko bera okupatzen dutela pentsa liteke; hala ere, lan honetan kokapen beregainak esleitzen dizkiet. Euren ezaugarri gramatikalak deskribatzen ditut eta, agerian ditzuten desberdintasunak eta murriztapenak aintzat hartuta, *-a* partikula Jokatusun²

1 Partikula horien analisi semantiko-pragmatikoak artikulu osoa mereziko luke eta oraingo helburutik alden-duko gintuzke.

2 Lan honetan zehar laburdura hauek erabiliko ditut: AK = akusatiboa, ART = artikulua, DAT = datiboa, G = galdera, IN = inesiboa, KONP = konplementatzailea, KOP = kopula, LAG = laguntzailea, MSK = maskulinoa, P = partikula, SG = singularra, SOZ = soziatiboa, TOP = topikoa.

buruan³ kokatzen dela eta *al* partikula Denbora Sintagmaren eta Jokatusun Sintagmaren arteko Partikula buruan kokatzen dela proposatzen dut:



Eremu horiek proposatuak izan dira beste hizkuntza batzuetarako, hots, ezker periferia eta erdiko eremua (Bayer & Obenauer, 2011; Grosz, 2005; Kuong, 2008; Li, 2006; Prieto & Rigau, 2007)⁴.

Ikerlan honetarako bi lagin mota erabili ditut: batetik, lan literario eta ikerlan dialektologikoek osatutakoa eta, bestetik, Zuberoan, Baxe Nafarroan eta Gipuzkoan egindako inkesta eta elkarrizketen bidez lortutako datuak biltzen dituen.

Artikuluaren garapena honakoa da: hasteko, beste hizkuntza batzuetarako proposatutako hainbat azterbideren ideia nagusiak nabarmentzen ditut; hirugarren atalean partikula modalen propietate orokorrak ikertu ondoren, laugarren atalean *-a* eta *al* partikulak aztertzen ditut partekatzen dituzten ezaugarriak eta euren arteko desberdintasunak nabarmenduz; bosgarren atalean euskalaritzan Gramatika Sortzailearen barruan egindako analisiak berrikusten ditut laugarren atalean aditzera emandako hainbat ezaugarriren ildotik. Seigarren atalean, partikulen ezaugarri bereizgarrietan oinarrituz *-a* partikularen sorgunea Jokatusun burua dela eta *al* partikula Partikula Sintagman kokatzen dela argudiatzen dut. Azkenik, artikulu honen ondorio nagusiak eskaintzen ditut.

3 Indar Sintagma eta Jokatusun Sintagma bereizita ez daudenean, alegia Konplementatzaile Sintagma zabalteko arrazoirik ez dagoenean, Konp⁰-n kokatuko da *-a* partikula.

4 Nabarmentzekoa da Chenen (2019) lana; bertan mandarineraren dialekto batean erabiltzen den galdera partikula eta mandarineraren galdera partikula orokorra ikertzen dira eta antzera banatzen ditu egitura sintaktikoan: *ma* partikula estandarra ezker periferian kokatzen da; *ba*, ordea, erdiko eremuan.

2. BESTE HIZKUNTZA BATZUETARAKO PROPOSAMENAK

Atal honetan, *al* eta *-a* partikulak aztertzeari ekin aurretik, euskaratik kanpo galdera partikulez egin diren proposamenetara jotzen dut; horretarako hizkuntza tipologikoki ezberdinak ikertzen dituzten eta proposamen sintaktiko aniztasuna islatzen duten lanak hautatu ditut: Rizzi (2001) italiararako, Li (2006) mandarinerako, kantonerarako, Prieto eta Rigau (2007) katalanerako, Kuong (2008) kantonerarako, Bailey (2013) orokorrean eta Kuwabara (2013) japonierako. Berrikusi ditudan lan horietatik azpimarratuko nuke Baileyk (2013) galdera partikulen literaturan antzematen dituen hiru posizio nagusiak lekukotzen direla: a) Indar edo Konplementatzaile Sintagma, Kuwabarak (2013) *ka*-ri esleitua (3a); Indar Sintagma baino behegaroko sintagma bat, e.g. Rizziren (2001) Galdera Sintagma (3b); eta, azkenik, Indar Sintagma baino goragoko gune bat, esaterako, Lik (2006) mandarinerazko *a*-ri Diskurtso Sintagma emandakoa (3c).

- (3) a. [IndarS [FokS [JokS [InfS [AS] [Denb]] [Jok]] [Fok]] [Indar *ka*]]
 b. [... [IndarS [Indar] [GaldS [Gald *se*] [TopS [Top] [FokS [Fok] [JokS [Jok] [DenbS [Denb] [AS]]]]]]]]]]
 c. [EpistS [Epist] [EbidS [Ebid] [EpistS [Epist] [DiskS [Disk *a*] [GraduS [Gradu] [IndarS [Indar] [...]]]]]]]]]]

Halaber, gogoan eduki dezagun partikula guztiek ez dutela berdin jokatzeko, ez baitira mota berekoak. Aurrekoak galdera partikulatzat jotzen dira, Xiangek (2012) argudiatzen badu ere galdera partikula askok funtzio pragmatikoa dutela sintaktikoa baino; hala ere, batzuetan partikula modalak eta performatiboak talde berean sartu izan dira, esate baterako, alemanezko *denn* eta *wohl* partikulak. Hori kontuan hartuta, erdiko eremuan ere ager daitezke galdera partikulak (alem. *denn* edo *dn*). Izan ere, hizkuntza berean gune biak proposatu dituzte Haegemanek (2014), Coniglio eta Zegreanek (2012), Paulek (2014), Chenek (2019). Euskarari begira, antzeko egoera dagoela proposatzen dut: *-a* eta *al* kokapen desberdinetakoak dira, lehenengoa KonpS-n eta bigarrena DenbS-ren eremuan agertzen baitira (*cf.* Lizardi-Ituarte, 2019).

Bestalde, partikulen ezaugarriak dagokienez, honakoa nabarmenduko nuke. Hizkuntzek, hala nola japonierak, mandarinerak, kantonerak edota wenzhouerak, mota desberdineko partikulak erabil ditzakete aldi berean (Kuong, 2008; Kuwabara, 2013; Li, 2006), baita alemanak (Bayer & Trotzke, 2015) eta suedierak (Scherf, 2017) ere; alegia, partikula modal/diskurtsibo bat baino gehiago azal daitezke perpaus berean, direla epistemikoak, ebidentzialak, galderazkoak edo beste mota batekoak. Esaterako, hurrengo adibideetan *lo3* eta *mo4* kantonerazko partikulak eta *nog* eta *väl* suedierazko partikulak agertzen dira hurrenez hurren:

- (4) a. Kantonera (Kuong, 2008, 729. or.)
Keoi zou saai gungfo lo3 mo4
 bera egin guztia etxekolan P G
 'Etxekolanak amaitu ditu?'
 b. Suediera (Scherf, 2017, 83. or.)
Nog har väl Peter köpt boken?
 P LAG P Peru erosi liburua.ART
 'Peiok zalantzarik gabe liburua erosi du, ezta?'

Honez gain, testuinguru zuzenetan ez dira nahitaez erabili behar (jap. *ka*, mand. *ma*, kat. *que*) munduko hizkuntza gehienen partikuletarako iradoki den bezala (Xiang, 2012). Beraz, ez dira markatzaile sintaktikoak, pragmatikoak baizik⁵. Hots, ez dute galdera sintaktikoki markatzen; aitzitik, galdera hori zelan ulertu behar den adierazten dute⁶:

- (5) Katalana (Prieto & Rigau, 2007, 30. or.)

(*Que*) *plou?*
G euria.egiten.du
'Euria egiten du?'

Zehar-galderetan galdera partikulak dituzten hizkuntza guztiek ez dute berdin jokatzeko; batetik, kantonerazkoa edo mandarinerazkoa ezin baitira testuinguru horretan azaldu eta, bestetik, japonierazkoa nahitaez erabili behar dira eta:

- (6) Mandarinera (Li, 2006, 30. or.)

Hóngjiàn xiǎng zhīdào Xiǎofú huì zuò yú ma.
Honjian nahi jakin Xiaofu dezake sukaldu arrain P
'*Honjianek bere buruari galdetzen dio ea Xiaofuk arraina sukaltzen ote dakien.'
'Jakin nahi du Honjianek Xiaofuk arraina sukaltzen dakiela?'

- (7) Japoniera (Kuwabara, 2013, 97. or.)

Watasi-wa Hanako-ni Tokyo-de umareta no ka tazuneta.
ni-TOP Hanako-DAT Tokyo-IN jaio KONP P galdetu
'Hanakori Tokyon jaio al zen galdetu diot.'

Azkenik, hainbatek (Li, 2006; Prieto & Rigau, 2007) partikulen hautazkotasuna aztertu eta erabilera jakin batzuekin lotuta dagoela ondorioztatu dute, esaterako katalanezko *que* edo mandarinerazko *ma* ezin direla edozein polaritatezko galderatan erabili: lehenengoak testuinguru formaletan du muga eta bigarrenak hiztunak erantzuna jasotzeko asmo handia duela adierazteko balio du. Kasurako:

- (8) a. Katalana (Prieto & Rigau, 2007, 36. or.)

#*Que he de declarar, senyoria?* (cfr. *He de declarar, senyoria?*)
G behar.dut deklaratu, jauna
'Deklaratu behar dut, jauna?'

5 Laginetik ondoriozta daiteke *-a* eta *al* ere ez direla sintaktikoki nahitaezkoak polaritatezko galderak sortzeko. Izan ere, partikula horien erabilerak pragmatikarekin zerikusia duela esango nuke. Hala ere, lan honen mugetatik kanpo gelditu beharko da auzi hori, etorkizuneko ikerketa batean sakondu ahalko delakoan.

6 Berrikusle batek galdetzen du ea markatzaile pragmatikoak egitura sintaktikotik kanpo dauden. Erantzuna ezezkoa da; partikula modalek edo ebaluatzaile-ebidentzial-epistemikoez gune sintaktikoa duten heinean, diskurtsoari eta bere performazioari zuzenago eragiten dieten horiek ere badute gune bat egitura sintaktikoaren barruan.

- b. Mandarinera (Li, 2006, 29. or.)
Hóngjiàn zài bàngōngshì ma?
 Hongjian IN bulego G
 'Ba dago Hongjian bere bulegoan?'
 # 'Ah... Hongjian bere bulegoan dago?...'

Hurrengo ataletan datu horiek gogoan euskarazko partikula modalak, eta galdera partikulak batez ere, aztertzeari ekingo diot.

3. PARTIKULA MODALAK: EZAUGARRI SINTAKTIKO OROKORRAK

Euskal gramatiketan deskribatu ohi da baieztako perpausetan aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean ez dela ezer tartekatzen, tradizionalki *partikula modala*⁷ deitukoak izan ezik (Albizu, 1991; De Rijk, 1969; A. Elordieta, 2001; G. Elordieta, 1997; Euskaltzaindia, 1987). Partikula horiek egun Euskaltzaindiaren (1987, 486. or.) arabera honakoak dira: *al*, *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*. Horiez gain, Euskaltzaindiak *-a* partikula ere multzokatzen du aurrekoekin baina ez izendapen berean; hots, *-a* galdera markatzailetzat hartzen du eta partikula modalekin batera «adizki jokatuari erantsitako beste-lako elementuak» multzoa osatzen du. Hurrengo lerroetan harreman estu hori edukiko dut aztergai; hots, partikula modalen eta aditz jokatuaren arteko harremana.

Lehenik, ezeztoketan ezaguna da aditz laguntzailea *ez*-ekin batera aurreratzen dela, aditz lexikoa *in situ* dagoelarik; partikularik egonez gero, aditz laguntzailearekin batera mugitzen da (De Rijk, 1969, 169. or.):

- (9) Gure herrira [ez_i al_j zara_k] inoiz etorriko t_i t_j t_k?

Bigarrenik, ekialdeko hainbat hizkeratan NZ-galderetan edo foku-egituretan aditz laguntzailea bakarrik mugitzen da osagai fokalizatuaren ondoan agertzeko; horrelakotan ere partikula eta aditz jokatu elkarrekin mugitzen dira (Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, 316. or.):

- (10) Aitak [omen_i du_j] aurdiki t_i t_j. (Laffite apud Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, 317. or.)

Hirugarrenik, jakina da euskaraz fokua eta aditza ezin direla bereizi, (11) adibidea bezalako testuinguruetan. Hala ere, partikula agertzen da fokua eta aditz trikoen artean:

⁷ *Partikula modal* izendapena gorabehera, berauek ez dira aditz modalekin nahastu behar Elordietak (1997, 57. or.) eta Elordietak (2001, 177. or.) erakusten duten bezala. Alegia, aditz modalek ez bezala, partikula modalek ez dute subjektuekiko edo osagarriekiko komunztadurarik egiten edo aspektu markarik hartzen; halaber, ezeztok testuinguruetan hitzordena desberdina dute; azkenik, partikula modalek indar ilokutiboari eragiten diote, hots, hitzunez proposizioarekiko jarrera epistemikoa edota informazioaren iturria adierazteko balio dute.

- (11) a. ZU (*gaur) zara alkatea?
 b. ZU al zara alkatea? (De Rijk, 2008, 175. or.)

Laugarrenik, euskarak ez du onartzen aditz trinkoa perpaus hasieran⁸; horrelako kasuetan aurretik klitiko bat gehitzen zaio adizki jokatuari, i.e. *ba-* (Euskaltzaindia, 1985, 367. or.)⁹. Partikularen bat aurrean duten arren, *ba-* beharrezkoa da egungo euskaldun gehiagorentzat¹⁰:

- (12) a. *(Ba) dator?
 b. *(Ba) al dator?

Bosgarrenik, Albizuk (1991, 23-24. or.) diosku partikula hauek Denb (/ Inf)¹¹ burua aukeratzen dutela, bertan agertzen diren forma jakin batzuk bakarrik onartzen baitituzte; hots, indikatibozkoekin batera azal daitezke, baina sekulan ez subjuntibo edo aginterazko formekin:

- (13) a. Pellok edan (omen) duela esan du Mirenek.
 b. Pellok edan (*omen) dezala esan du Mirenek.
 c. Edan (*omen) ezak, gizon!

Azkenik, perpaus jokatugabeetan partikulak ezin dira agertu; esaterako:

- (14) *Horrela omen eginik (Euskaltzaindia, 1987, 511. or.)

Datu horietatik ondorioztatzen dut partikulak nolabaiteko hizkiak direla eta aditz jokatua den buru bati lotu behar zaizkiola; alegia, klitiko legez jokatzen dute. Partikula modalen propietate nagusiak azaleratuta, errepara diezaiogun artikulatu honen ikergaiari, i.e. galdera partikulei.

8 Antzeko jokabidea lekukotzen da hizkuntza zeltiarretan (Rivero, 1993).

9 Murriztapen honek salbuespenak ditu: batetik, egungo hitzun gazteek joera dute *ba-*rik gabeko formak erabiltzeko (Elordieta & Haddican, 2018, 405. or.); bestetik, historikoki perpaus hasieran agertzen diren hainbat aditz trinko soilen testigantzak jaso dira. Kasu bietan aztertu beharko litzateke zein aditzek duten erabilera hori, aditz trinko forma gutxi batzuk perpaus hasieran *ba-*rik gabe azal daitezkeelakoan bainago (e.g. *da*, *dago*, *nago*, *dut*, *daukat*...). Esate baterako, aurkezpen testuinguruetan dira zilegi (Elordieta & Haddican, 2018, 405. or.).

10 Berrikusle batek ohartarazi duen bezala, historikoki *omen* eta *ote* partikulak esaldi hasieran azaldu izan dira, aurretik *ba-*ren beharrik gabe. Hau lotuta egon liteke partikula horien gramatikalizazioarekin: egungo erabileran partikula horiek klitikoan moduan jokatzen badute ere, aurreko fase historikoan hitz osoetatik hurbilago egongo ziren (Cardinaletti, 2011; *cfr.* Monforte, 2020). Halaber, *omen*-ek eta *ote*-k jokabide ezohikoa dute ekialdeko hainbat hizkeratan (Etxepare & Uria, 2016; Monforte, 2019). Azkenik, aztertu beharko litzateke historikoki zein testuingurutan zen *ba-*rik gabeko erabilera zilegi, 7. oin-oharreen esanarekin eduki bailezake zerikusia.

11 Gramatika lan batzuetan *Inflexio Sintagma* terminologia hobesten dute eta beste batzuetan *Denbora Sintagma* (hala ere, salbuespenak badaude, esate baterako Elordietaren (2001) lana, bertan biak erabiltzen baitira). Sintagma horiek okupatzen dituzten osagaiak oro har berdinak direnez eta, terminologia albo batera utzita, egitura sintaktikoan alderik ez dagoenez, lan honetarako *Denbora Sintagma* terminoa lehenesten dut testuaren koherentziaren eta argitasunaren onurarako.

4. GALDERA PARTIKULEN ANALISIRANTZ

Hainbat euskaldunek proposizio bat baieztatzeko edo ezeztatzeko eskatu nahi dutenean *al* eta *-a* partikulez baliatzeko aukera daukate. Partikula horiek ezin dira NZ- edo hauta-galderetan erabili, beste hizkuntza batzuetan ez bezala (Kuwabara, 2013; Li, 2006; Lusini, 2013):

- (15) a. *Nor etorri al da? /*Nola hiza ?
 b. *Mikel etorriko al da ala zu (etorriko [al] zara)? (Goenaga, 2009, 383. or.)
 c. *Mikel heldu dea ala zu (heldu zira[-a])?

Hurrengo lerroetan ekialdeko galdera partikula (*-a*) eta erdialdekoa (*al*) arakatzeari ekingo diot, 4.1. eta 4.2. azpiataletan hurrenez hurren.

4.1. Ekialdeko partikula: *-a*

4.1.1. *Hedadura geografikoa, izaera hautazkoa eta erabilera*

Partikula honen hedadura geografikoa historikoki ekialdeko eremuan kokatu da¹²; egun Zuberoa eta Hazparneko eskualde bitartean erabiltzen da (Epelde, 2003; Zuazo, 2014).

Lagineko adibideek erakusten duten bezala, bere erabilera ez da nahitaezkoa galderak sintaktikoki osatzeko. Egia esan, ikerketa honetan egindako elkarrizketek agerian uzten dute, batetik, partikularen erabilera gainbehera doala gazteen artean eta, bestetik, hiztunek orokorrean ez dutela nahitaez erabiltzen¹³. Beraz, badirudi partikularen funtzioa pragmatikoa dela¹⁴.

Bestalde, honako erabilerak dakarzkigute Euskaltzaindiak (1987) eta OEHk (Mitxelena & Sarasola, 2017): bateko, aditz jokatuari eransten zaio eta, berau isilduta egongo balitz, izenordain bati edo adberbio bati lot dakioko (16); eta, besteko, hainbat testu-irurutan baldintza edo denborazko balioa eduki dezake (17).

12 Azkuek (1969) bere *Morfologia Vasca*-n mendebaldeko euskalkian ere topatzen uste ditu partikula honen aztarnak. Mungialdeko Marurikoa da adibidea:

(i) Ondo dagoa? (Azkue, 1969, 534. or.)

Hala ere, OEHk (Mitxelena & Sarasola, 2017) ez du hain argi ikusten ekialdeko *-a* partikularekiko zerikusia. Egia esan, «Ondo dago (h)a?» (‘¿Está bien aquí/ aquella/ aquello?’) legez uler liteke; edo Mutrikun erabiltzen den *a* (Lizardi-Ituarte, 2019) perpaus amaierako partikula izan liteke.

13 Salaberriren (2000, 241. or.) ustez, Luzaiden *-a* partikula guztiz erabiltzen den arren, Santaziliak (2009, 234. or.) hautazkoa dela ematen du aditzera gaur egun Luzaiden. ‘Hautazkotasuna’ sintaxiaren aldetik esleitzen zaio, pragmatikan ez baita hautazkoa, jakina.

14 Partikula horren erabilera pragmatikoaren lehenengo hurbilketa baterako, ikus Monforte (2020).

- (16) Nondik gerlak eta guduak zuen artean? Eza hemendik? (Leizarraga apud Mitxelena & Sarasola, 2017)
- (17) Hasten zena bada mintzatzen, argitzen zaizkon begiak¹⁵ (Lafitte, 1944, 494. or.)

Nabarmentzekoa da ekialdeko partikulak ez ezik, erdialdekoak ere denborazko babilioa dutela; gainera, horrek esan nahi du galderetatik kanpo ere erabil daitezkeela dirrelako galdera partikulak. Hala ere, zuhur hartuko nituzke erabilera horiek nekez jasotzen baita horren berri gramatika lanetan eta erretorikotasunarekin eduki bailezake zerikusia.

Partikularen erabilerari eta funtzioari dagokienez, bai *bona fide* galderetan, bai erretorikoetan erabiltzen da. Lagina aztertuta egiaztatu dut erantzuna jasotzen duten galderen kopuru nabarmena baliatzen dela *-a* partikulaz:

- (18) Piarres edo Bas Urdia (Ichteberi): Zer diok puttil, ikusten duka zerbeit? Ichtebe: Egia erran, ez dut ez gauza haundi-haundirik... Bainan ba dut zerbeño... Hots zure laguntzeko doia (Salaberry, 1958, 134. or.)
- (19) Biharamenian errhaztazalia laniala jin beitzon, erran zioa:
 – Bena atzo zure khatin beitzen emazte zahar bat ikhusi düzia nur zen nigarrez ari zen hura?
 – Bai, hebenko emazte bat düzü (Peillen, 1986, 70. or.)

Bestalde, lan honetarako elkarrizketatu guztiak¹⁶ bat etorri dira galdera jakin batzuk egitean, kasu guztietan *-a* partikula erabili dute eta. Honen arrazoa argi ez badaukat ere, hona ekartzea interesgarria iruditzen zait:

- (20) a. Atzo ebia egin dia? (Ürrüstoi-Larrabile)
 b. Igan astin heben elür egin dia? (Urđiñarbe)
 c. Maskaradak, ikusten tützieia? / Üsatü zideia maskaraden ikustea? (Urđiñarbe)

Erabileraren datuak mahaigaineratuta, jarraian azterketa gramatikalari ekingo diot.

4.1.2. Jokabide gramatikala

Partikula modalak aditz lexikoaren eta jokatuaren artean agertzen badira ere, *-a* partikula aditz jokatuaren ostean kokatzen da; beraz, *-(e)n* eta *-(e)la* menderagailuen kokagunean azaltzen da. Jarraian *al* eta *-a* partikulak bereizten dituzten beste hiru ezaugarri deskribatuko ditut.

15 Honako interpretazioa eskaitzen du Lafittek (1944, 404. or.): ‘Quand il commençait à parler (litt : commençait-il donc à parler), ses yeux devenaient brillants’.

16 Elkarrizketatuei eskatu zitzaizen aurrean zuten pertsonari hainbat galdera egitea; horretarako inkesta moduko eredu bat eman zitzaien, datuak betetzeko; esaterako: adina, jatorria, egoera zibila... Horien artean eguraldiaz eta asteburuan egindakoaz galdetu behar zuten.

Lehenengo, *-a* partikula aditzik gabeko testuinguruetan ager daiteke. Dena den, honelako erabilera ez bide dago gaur egun indarrean, izenordainekin¹⁷ eta *bai* edo *ez* morfemekin bakarrik lekukotzen da eta (Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, 320. or.):

- (21) a. Baia? (Camino, 2009, 190. or.)
 b. Nika? (Lafitte, 1944, 99. or.)
 c. *Jonek-a?

Bigarren, Euskaltzaindiak (1987, 500. or.) kontrakoa dioten arren, *-a* partikula *ote* partikularen ohiko erabilerarekin bateragarria dela frogatzen den ebidentzia jaso dut, baita *ote* partikulak bestelako kokaguneak dituen ere (Monforte, 2019):

- (22) a. JONEK ote dia erran? (Behauze)
 b. Eta Baxi-Nabarreko koblakari batek, ez ote düa erran [...]? (Coyos, 2013, 84. or.)
 (23) Deklarazione egunean zeiak jo zutela, gerla zela ta denak izitiak, eta uai nor joain da ta hau joain eta, aita joain dea othe? (Camino, 2009, 193. or.)

Beraz, hortik ondorioztatzen dut partikula bi horiek sintaktikoki ez ezik, semantiko-ki ere bateragarriak direla¹⁸. Horrenbestez proposatu nahi dut *-a* partikulak ez diela polaritatezko galderei zama semantikorik gehitzen; bestela esanda, bere erabilera performatiboa da¹⁹.

Azkenik, *-a* partikula ezin da mendeko perpausetan agertu, partikulak eta menderagailuak kokapen bera okupatzen dutela ematen baitu²⁰:

- (24) a. Hemen bizi dea? (Euskaltzaindia, 1987, 500. or.)
 b. *Hemen bizi dean galdegin du.
 c. Hemen bizi den galdegin du.

Partikula eta menderagailuak bateraezinak izateak iradokiko luke *-a* partikulak Konp⁰ gunea²¹ betetzen duela; halaber, kokagune honek *ote* partikularekin bateragarria izatea ahalbidedetuko luke.

17 Baliteke lehenengo pertsona singular ergatiboko izenordainean bakarrik gertatzea.

18 Beste partikulekin bateragarria ote den zaila da jakitea: batetik, *-a* bai/ezko galderetan bakarrik agertzen denez, printzipioz ezin da *omen* edo *bide* partikulekin batera agertu; bestetik, *al* partikularen perpaus mota bat dator *-a*-renarekin baina euren eremu geografikoa, egun behintzat, ez. Hala ere, *ahal* partikularekin bateragarria izan daitekeela ematen du (Monforte, 2020), ebidentzia *ote*-rena bezain sendoa ez bada ere.

19 Ekialdeko galdera partikularen funtzioa beste partikulenarekin (*bide*, *ei*, *omen* eta *ote*) erkatuz gero, aldea nabarmena da, azken horiek zama semantikoa baitute; *-a*-k, ordea, hiztunaren eta entzulearen arteko hizketa ekintzarekin du zerikusia (cfr. Monforte, 2020).

20 Menderagailuen eta partikularen arteko aldea aditz jokatuari lotzean gertatzen diren aldaketa fonologikoe-tan datza. Alegia, *dük* aditz laguntzaileari *-(e)la* menderagailua gehitzean, *düala* gauzatzen da; forma bera, ordea, *-a* partikularekin lotzen denean, *düka* sortzen da.

21 Ortiz de Urbina (1993b) eta Laka (1991) bat datoz KonpS-n kokatzeko hipotesiarekin.

4.2. *al* partikula

4.2.1. *Hedadura geografikoa, izaera hautazkoa eta erabilera*

Polaritatezko galderetan *al* partikula erdialdeko euskalkian lekukotzen da. Egia esan, De Rijken (2008, 163. or.) arabera, partikula hau erdialdeko hizkeretan errotu eta handik zabaldu da, euskara batuaren eraginez batez ere (*cfr.* Aurrekoetxea, Gaminde & Iglesias, 2011, 22. or.).

Aztertu ditudan testuetan oinarrituta, ez du ematen bere erabilera nahitaezkoa denik; izan ere, laginean nahiz elkarrizketetan partikuladun eta partikularik gabeko formak jaso ditut:

(25) Ta seme-alabarik badakazue? (Äzpeitia)

Dena den, hiztunei iritzi gramatikalez galdetu zaienean, *al*-dun galderak hobetsi dituzte, eurek beti erabili ez dituzten arren²². Bere erabilera itxuraz hautazkoa bat dator *-a* partikularenarekin.

Euskaltzaindiara (1987, 512-514. or.) eta OEHra (Mitxelena & Sarasola, 2017) joz gero, honako erabilerak jasotzen dira: lehenik, erdialdeko euskalkian perpaus interrogatibo absolutuetan erabiltzen da (26); bigarrenik, euskalki guztietako hiztunek galdera erretorikoetan baliatzen dute (27); eta, azkenik, denborazko adiera duen erabilera ere eduki dezake (28)²³.

(26) Gaztaia erosiko al dezu? (Azkoitia)

(27) Ez al dizut esan ixilik egoteko? (Euskaltzaindia, 1987, 513. or.)

(28) Ez al zen klasera iritsi, klaseak hasi ziren (Euskaltzaindia, 1987, 514. or.)²⁴

Erdialdeko euskalkian informazioa bilatzen duten galderetan ez ezik, eskeetan ere erabiltzen da *al* partikula (aurretik aipatutako testuinguruetan erabiltzeaz gain):

(29) Escribaua: Egun on, Tricu jauna? Ematen aldigu beorren lizentziya? (Soroa, 1885)

Beraz, galderen pragmatikaren aldetik mota desberdinetan azaltzen da partikula hau. Gauzak horrela, polaritatezko galdez beste testuinguru askotan agertzea eta galdezko helburua ez duten zehar-galderetan erabili ahal izatea aintzat hartuta, ez daukat ebidentzia nahikorik ondorioztatzeko perpausa galdera dela sintaktikoki markatzeko baliabidea dela *al* partikula.

22 Antzeko egoera deskribatzen du Hacke (2014) Dolomitako ladinera *po* partikularen harira: hizkera batean beti erabiltzen ez duten arren, partikuladun formak hobesten dira, prestigioduntzat hartzen dira eta.

23 Bestelako erabilerak jasotzen dira OEHren (Mitxelena & Sarasola, 2017) sarrera berean: batetik, zalantza edo desira dakarkio *al*-ek perpausari eta, bestetik, batzuetan zalantza bainoago ziurtasuna adierazten du. Hala ere, erabilera horiek ez dagozkie *al* galdera partikulari, *abal* partikula epistemikoari baizik (Monforte, 2018).

24 Honako interpretazioa dakar Euskaltzaindiak (1987, 514. or.): «klasera iritsi bezain laster/ klasera iritsi gabe».

4.2.2. Jokabide sintaktikoa

Partikula hau aditz laguntzailearen edo forma trinkoaren aurrean kokatzen da, beraz aditz jokatuari atxikitzen zaion aurrizkia da.

Aurretik azaldu dut *-a* partikula aditz jokatua ez diren beste osagai batzuei lot da-kiekeela; kasu honetan *al* partikulak ez du horrela jokatzeko, ezta gainerako partikulekin ere²⁵. Era berean, *-a* partikulak ez bezala, *al* ez da beste partikulekin batera azaltzen:

(30) *Auto gorria erosi {ote al}/{al ote} duzu?

Bestalde, kasu honetan partikula eta menderagailua ez dira gune berean agertzen eta *al* mendeko perpausetan erabiltzea zilegi da. Dena den, Suñerri (1993) eta Ortiz de Urbinari (2008) jarraituta²⁶, zehar-galderetan bakarrik erabiltzen da (De Rijk, 2008; Euskaltzaindia, 1987). Aitzitik, erdi-galderak hartzen dituzten predikatuek ez dute *al* partikula onartzen:

(31) Entzuten al duzun galdetzen dizut. (Lertxundi apud De Rijk, 2008, 442. or.)

(32) Hori Aurorarekin ibili da hizketan beraz berak badaki Aurora jubilatuko (*al) den.

Honaino *al* partikularen ezaugarri sintaktikoak. Agerian geratu denez, *al*-ek eta *-a* partikulak ez dute berdin jokatzeko. Hortik abiatuta, gune desberdinak esleituko dizkiet: ekialdeko galdera partikulak ez bezala, erdialdekoak DenbS-ren eremuan gune bat duela argudiatuko dut, JokS-ren eta DenbS-ren arteko kokapena hain zuzen. Hurrengo atal-letan horretan sakonduko dut; jarraian (§5) aurreko hipotesiak aintzat hartuko ditut.

5. GALDERA PARTIKULAK EUSKALARITZAN: AURREKO AZTERBIDEAK

Oraingo honetan euskalaritzan aurretik plazaratutako bost analisi (Albizu, 1991; Arregi & Nevins, 2012; A. Elordieta, 2001; G. Elordieta, 1997; Haddican, 2008)²⁷ berrikusiko

25 Ekialdeko hizkeretan *omen* eta *ote* partikulak fokua ondotik ager daitezke aditz jokatua elipsiaren ondorioz morfonologikoki gauzatzen ez bada. Hala ere, partikula horien izaera sintaktikoa eta orain aztergai dudana *al* partikula ez datoz bat, lehenengok XS estatusa baitute (Etxepare & Uria, 2016; Monforte, 2019).

26 Batetik, egiazko galderak daude, balio zehaztugabea dutenak eta, ondorioz, erantzun irekia eskatzen dutenak, esaterako *Ez dakit nora zoazen*; kasu honetan hiztunak ez du helmugaren balioa ezagutzen. Bestetik, erdi-galderak ditugu, galdera itxura duten arren, erantzun jakina eta zehaztua dutenak, esaterako *Badakit nora zoazen*; kasu honetan, aldiz, hiztunak badaki entzulearen helmuga.

27 Lan horiez gain, Mutrikuko *al* eta *ba* partikulak beren-beregi aztertzen ditu Lizardi-Ituarte (2017) neoperformatismoaren barruan. Lan horretan *al* eta *ba* partikulen ekarpenaren berri ematen digu autoreak eta, hori aintzat hartuz, kokagune beregaina esleitzen dio partikula bakoitzari Hizketa Ekintza eremuan zehar (ing. *Speech Act domain*): *ba*-k Hiztun-erantzun Sintagmaren burua okupatzen du eta *al*-ek Hiztun-oinarri Sintagmaren burua. Proposamen interesgarria eta berritzailea bada ere, ez zaio eratorbide sintaktikoari lekuri ematen; beraz, artikulu honen oraingo eginkizunari begira, gehiegi aurreuposatu beharko nuke eta berorrek desitxuratuko luke azterketa. Hala ere, esan beharra dago *al* eta *ba* partikulei esleitutako eremu sintaktiko hori KonpS-ren eremua baino gorago dagoela kokatuta (Heim, Keupdjio, Lam, Osa-Gómez & Wiltschko, 2014; Wiltschko, 2017); hori dela eta, 3. azpiatalean deskribatutako hainbat propietateri azalbi-dea emateko sintaxi osteko mugimendu bat edo mugida *ad hoc* bat proposatu beharko litzateke, esaterako, partikulak eta aditz jokatuak bat egin lezaten.


ditut aurreko atalean (§4) aditzera emandako hainbat ezaugarri kontuan hartuta; halaber, galdera partikulei kokagune sintaktiko desberdinak esleitzeko argudioak edukiko ditut hizpide.

5.1. Partikularen besarkaduraz

Haddicanek (2008) eta Etxeparek (2010) nabarmentzen dute arlo honi dagokionez aurreko analisi batzuek (A. Elordieta, 2001; G. Elordieta, 1997) ezin dutela partikulen besarkadura egokiro azaldu. Ezezko perpaus partikuladunen interpretazioari erreparratzen dio Haddicanek (2008, 72. or.) partikulek ezeztapena o-komandatzen dutela frogatzeko:

(33) Ez omen zen Oiartzunen jaio, # baina ez omen zen kanpoan jaio ere.

Adibide horretan lortzen den interpretazioa pragmatikaren ikuspuntutik ez da egokia, gramatikalki zuzena bada ere: «esaten denez, ez zen Oiartzunen jaio, baina, esaten denez, ez zen kanpoan jaio ere». Alegia, pertsona bat inon ez zela jaio esaten delako adiera ulertzen dute hiztunek. Horrek azalean uzten du partikulak ezeztapenaren gaineko besarkadura daukala; bestela esanda, «ez zela inon jaio» perpausari kanpoko iturritik entzun eta esaten delako ñabardura (*esaten denez, omen*) gehitzen zaio. Erlazio hierarkiko hori Haddicanen (2008) eta Etxepareren (2010) azterbideek erraz azal dezakete:



Haddican (2008) egokitua

Ezeztapena goi-goian ageri bada ere (Polaritate Sintagmaren espezifikatzailean) bere hasierako posizioan berreraikitzen da eta hasierako posizio horretan partikulak o-komandatzen du.

Beraz, partikulen kokagunea proposatzeko orduan bi kontu hartu beharko lirateke aintzat: a) ezeztapenak ezin ditu partikulak o-komandatu; b) partikulak perpaus osoa

besarkatzen dute; horrenbestez, sintaktikoki sintagma goren batean kokatuta egon behar dira partikulak²⁸.

5.2. Arazo morfosintaktikoak

Galdera partikula biek kokagune sintaktiko bera eduki lezakeelako hipotesitik abiatuta, honako arazoak identifikatzen ditut *-a* partikularen azterketari dagokionez. Azpimarratu nahiko nuke *-a* partikula ez dela aurreko analisisetan aintzat hartu, partikula modalen ohiko multzoan sartzen direnak baizik (*ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*). Hala ere, osagai horiek guztien antzekotasun semantiko-pragmatikoak eta sintaktikoak kontuan hartuta, talde berekotzat jotzen ditut eta, horrenbestez, ohiko partikula modaletarako proposatutako analisiak ekialdeko *-a* partikularako ere egokiak ote diren ikertuko dut jarraian.

5.2.1. *-a partikula atzizkia da*

Lehenik, arestian aipatutako bost proposamenetan (Albizu, 1991; Arregi & Nevins, 2012; A. Elordieta, 2001; G. Elordieta, 1997; Haddican, 2008) *-a* partikula atzizkia dela zehaztu beharko litzateke, eratorpenean kokapen zuzena lortzeko; bestela, **nabi-a diik* bezalako formak osatuko lirateke. Hitzordena hori, jakina, egokia da gainerako partikuletarako; alabaina, ekialdeko galdera partikula atzizkia da eta, beraz, aditz jokatuaren ondoren azaltzen da.

Partikula horrek atzizki ezaugarria duela proposatzea *ad hoc*-tzat joko nuke. Are gehiago, *al* partikularekin erkatuz gero; kokaguneari dagokionez, azterbide horiek ez dakarte arazorik partikula horretarako, adizki jokatuaren aurretik atxikita agertuko litzateke eta. Beraz, *al*-i eta beste partikula modal tradizionaleri egin beharko ez litzaien zehaztapena beharko luke *-a*-k.

5.2.2. *ote partikularekin agertzeko gaitasuna*

Aurretik erakutsi dut *-a* partikula *ote* partikularekin erabil daitekeela perpaus berean (22a eta 22b). Azpiatal honetan hizpide ditudan hipotesiek ezin dute azaldu bi partikulak aldi berean agertzea gune bera okupatzen dutelako; beraz, bateragarritasun hori azaltzeko buru desberdinetan kokatu beharko lirateke *-a* eta *ote*. Dena den, *al*-erako egokiak dira, berak beste partikulekin duen murriztapenari azalbidea ematen baitiote.

28 Gutzmannek (2015, 234-239. or.) argudiatzen du partikula modalek besarkadura zabala dutela perpaus osoa besakartzen baitute; ebidentzia horretan oinarrituta, zehazten du besarkadurarik gabeko osagaitzat har litezkeela (ing. *scopeless*) Potts (2005) jarraituz. Beraz, partikula bat hierarkikoki ezeztapenaren azpian azalduko balitz ere, interpretazioaren aldetik ezeztapenak ez luke partikula besarkatuko; aitzitik, partikularen ekarpena bereizirik gehitzen zaio proposizioari, beste eremu batean baitu eragina. Azkenik, Gutzmannek (2015, 237. or.) horretan sakontzen ez badu ere, syntaxian hierarki horren isla dagoela ematen du aditzera, *ja* partikula modalaren eta *nicht* ezeztapenaren arteko hitzordena *ja nicht* baita eta ez *nicht ja*.

5.2.3. Mendeko perpausetan azaltzeko aukera

Bost azterbide horietako batek ere ezin du azaldu zergatik ez den *-a* partikula mendeko perpausetan agertzen. Izan ere, gainerako partikulen moduan jokatuko balu, ez legoke arazorik mendeko perpausetan agertzeko.

Ohiko azalbideak diosku menderagailuekiko bateraezintasuna *-a* partikularen izaera atzizkitasunean datzala. Hala ere, aurretik proposatu dudanez, *-a* partikula Konp⁰ (/Jok⁰)-n sortzen dela onartuz gero, bateraezintasun hori azalduta legoke, menderagailuak gune berean sortzen baitira. Bestalde, *al* partikula *-(e)n* menderagailuarekin bateragarria izateak ez dakar arazorik, gune desberdinetakoak baitira.

Hurrengo atalean datu horiek gogoan izango ditut, hipotesi berria proposatzekoan.

6. HIPOTESI BERRI BATERANTZ

Galdera partikulen analisi berri bat garatu baino lehen, galderen sintaxia ikertzeko oinarria aurkeztuko dut labur jarraian (§6.1). Hori argituta, partikula bakoitzaren azterketa emango dut aditzera 6.2. eta 6.3. azpiataletan.

6.1. Polaritatezko galderen azterketa

Galdera absolutuen azterketa sintaktikoari dagokionez, Ortiz de Urbinaren (1989, 1993a, 2008) analisia hartuko dut abiapuntu. Beraz, *nz*-hitzak eta fokuak euren sorguneetatik Foku Sintagmara mugitzen direlako eta polaritatezko galderen operatzaileak Indar Sintagman kokatzen delako analisia hartzen dut neure gain:

(35) [_{IndarS} [Op] [_{Indar'} [_{Indar} [_{FokS} [*nz*-hitz/fokua] [_{Fok}] [_{JokS} [_{InfS} (*nz*-hitz/fokua)] [_{Jok}]]]]]]]]

Bai/ezko galderak perpaus nagusiak direnean, Ortiz de Urbinak proposatzen du [Op]eratzaile bat dagoela [espez, IndarS] gunean eta beronek [*nz*] tasuna duela. Ondorioz, tasun hori erkatzeko Inf⁰ Indar⁰-ra mugitu behar da. Eragiketa sintaktiko honek [A-Denb] bilkura lehenengo posizioan agerrarazten du:

(36) a. Ikusi du Jonek hori?
 b. [_{IndarS} [Op_{nz}] [_{Indar'} [_{Indar} [Ikusi du]] [_{FokS} [_{Fok}] [_{JokS} [_{DenbS} [Jonek] [_{Denb'} [_{AS} [Jonek] [_A [hori] [_A [ikusi]]] [_{Denb} [du]]] [_{Jok}]]]]]]]]]]

Hala ere, perpausan osagai bat fokalizatuta badago, fokuaeren tasunak erkatuta Denb⁰ Fok⁰-ra mugitu eta han geratzen dela dio Ortiz de Urbinak (2008):

(37) a. LIBURUA irakurri du Jonek?
 b. [_{IndarS} [Op_{nz}] [_{Indar} [_{FokS} [LIBURUA] [_{Fok'} [_{Fok} [irakurri du]]] [_{JokS} [_{DenbS} [Jonek] [_{Denb'} [_{AS} [Jonek] [_A [LIBURUA] [_A [irakurri]]] [_{Denb} [du]]] [_{Jok}]]]]]]]]]]

Laburbilduz, Ortiz de Urbinak (2008) honako azterbidea dakarkigu: (67) antzeko testuinguruetarako adizki jokatua Fok⁰-ra mugitzen dela eta (66) bezalakoetan Denb⁰ Indar⁰-ra igotzen dela, berriki Kuwabarak (2013), esaterako, japonierarako proposatu duen bezala²⁹.

Orokorrean Ortiz de Urbinari (1989, 1993a, 2008) jarraitzen badiot ere, bi puntutan aldenduko naiz. Lehenengoz, Adgerri (2003) eta Ginsburgi (2009) jarraituz Konp⁰-n galdera markatzen duen buru isila dagoela onartzen dut. Buru honek [Q] tasuna dauka eta *-a* partikula da ekialdeko euskalkietan buru horren gauzape fonologikoa. Bigarrenez, Denb⁰-k [*u*perpasmota:*] tasuna duela proposatzen dut; [Q] duen buruak o-komandoaren bidez balioztatzen du tasun interpretagaitz hori. Horrez gain, tasun sendoa denez, Denb⁰-k Konp⁰-rekin bat egin behar du tasuna harreman hurbilean erkatzeko asmoz; horrek ezkerrean mugida eragiten du.

Bestalde, Rizziren (1997) laneko izpirituarekin bat, Konplementatzaile Sintagma zabaltzeko arrazoirik ez dagoenean, ez dira Indar Sintagma eta Jokatusun Sintagma berezita egongo eta, horrenbestez, horrelako kasuetan Konp burua bakarrik gauzatzen dela hobesten dut.

Azkenik, osagai bat fokalizatuta dagoenean Konplementatzaile Sintagma hedatu egiten da; [Q] burua Jok⁰-n kokatzen da eta, bestalde, adizki jokatua Indar⁰-ra ez dela igotzen onartzen dut. Aitzitik, aditz jokatuaren eta fokuaeren arteko ondokotasuna aintzat hartuta, fokua [espez, FokS] gunean kokatzen denez, aditz jokatua Fok⁰-ra mugitu eta bertan gelditzen dela onesten dut, [*u*foku*] tasunak bultzatuta.

Galderen analisia ezarrita, partikulen azterketara bueltatuko naiz hurrengo puntuetan, bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak nabarmenduz.

6.2. *al* galdera partikularen azterbide berria

Aurreko atalean hainbat argudio eman ditut erdialdeko partikula gainerako partikulekin batera multzokatzeko, *-a* alde batera utzita. Horrenbestez, izendatu dudan Partikula Sintagma³⁰ delakoan kokatzea proposatzen dut. Partikula Sintagma Denbora Sintagmaren gainean eta Jokatusun Sintagmaren azpian kokatzen da; bi horiek bezala, osagarria-buru hurrenkera du:

$$(38) \text{ [IndarS [indar] [FokS [Fok] [JokS [PartS [DenbS [AS] [Denb]]] [Part]] [Jok]]]}$$

29 Kuwabarak (2013) japonierarako proposatzen du galderetan fokalizatuta dagoen osagaia aditza bada, orduan hau Indar⁰-ra igotzen dela. Bestela, beste edozein osagai fokalizatuta egonez gero, FokS aktibatuko litzateke eta, honekin batera, Jok⁰-n *no* morfema agertuko litzateke. Honek aditzaren mugida oztopatuko luke.

30 Sintagma horri *Partikula Sintagma* irizten diot. Izendapen hori hizkuntzalaritza germaniarrean ere baliatua izan da (Bayer & Obenauer, 2011; Scherf, 2017).

Jarraian erabaki hori hartzeko arrazoiak plazaratuko ditut. Hasteko, 5.1. puntuan partikulak duen hierarkia perpaus mailan erakutsi digute Haddicanek (2008) eta Etxeparek (2010).

Bigarrenez, Albizuri (1991) jarraituz, partikulak argumentu-hautatzaileak dira perpausaren denbora hautatzen dute eta.

Hirugarrenez, *-a-k* ez bezala, gainerako partikulek ez dute perpaus mota markatzen. Esaterako, *ote* partikula bakarrik erabiliz gero, perpausa ez litzateke ondo eratuko, perpaus mota ezartzea falta izango litzatekeelako (galderen kasuan, adibidez, adizki jokatuaren aurreratzea, baita *nz*-hitza ere, egonez gero). Horrenbestez, *ahal*, *al*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* partikulek ez dutela perpaus mota markatzen ondorioztatzen dut. Hala ere, perpaus motak partikulen erabilera baldintzatzen du. Esaterako, [*non dago Leire*] perpauean *nz*-hitza dago eta, *nz*-galdera den heinean, *ote* partikularekin bateragarria da.

Laugarrenez, *al* partikula mendeko perpausetan erabil daiteke; *-(e)n* menderagailuarekin batera agertzen da (31). Bestalde, osagaien banaketa linealari erreparatuz gero, A-Part-Lag-Mend hurrenkera lekukotzen da. Tipologiak honen alde egiten du, Cinquek (1999, 56. or.) dioenez, periferian zehar kokatzen dituen partikulek beti mugarri jakin bat baitute, i.e. menderagailua³¹.

Azkenik, *al* bera bakarrik agertu behar da; ezin da beste partikulekin batera azaldu³² (30) adibidean bezala. Tipologiak kontrakoa adierazi arren, oraingoz aurkako froga lortu arte, sinpletasunerantz joko dut eta partikula horiek buru bakarrean kokatzen direla onartuko dut.

6.2.1. *al partikuladun galderen azterbide berrirantz*

Aurreko puntuan Partikula Sintagmaren kokapena argudiatu dut. Oraingoan galdera partikulak bereizten dituzten testuinguruei erreparatuko diet eta eratorbide honek azaltzen dituela erakutsiko dut. Hasteko, polaritatezko galdera zuzen hau eratorriko dut:

31 Hala ere, *bait*- menderagailua aurrizkia denez, partikula ez da aditz jokatuaren ondoan agertzen, menderagailuaren aurretik baizik:

(i) Aipatzekoa da era berean bertoko jendearen erreakzioa Europako beste herri batzue-takoekin konparatuta, han barre egin omen baitute gehienetan eta hemen, ordea, ez (*Berria* apud EHUko Euskara Institutua, 2009)


Dena den, hierarkikoki partikula menderagailua baino gorago balego, horrek besarkadura arazoak lekartzake, interpretazioari begira menderagailuak partikula o-komandatu behar duelako:

(ii) a. [Arrazoa da > omen / esaten dela > han barre egin dutela gehienetan eta hemen, ordea, ez]
b. *[omen/ esaten da > arrazoa dela > han barre egin dutela gehienetan eta hemen, ordea, ez]

32 Partikula bat baino gehiago perpaus berean azaltzeko murriztapena bitxia da tipologian, hizkuntza askotan ohikoa ei da eta; ikus (3) adibidea.

(39) Ikusi al dezu poligono hori? (Txurruka & Urbietta, 2003, 148. or.)

Partikulak [*uDenb**] tasuna dauka eta berau erkatzeko [Denb] ezaugarria duen Denb⁰ Part⁰-era igotzen da. Horrez gain, Adgerren (2003) ildotik, Konp buruak [Q] tasuna du; berak Denb⁰-n dagoen [*uPerpaus mota:*] ezaugarriari balorea ezartzen dio, Denb⁰-k [*uPerpaus mota:* Q] lortuta. Gainera, tasun hori indartsua denez, harreman lokalean egon behar dira bi buruak; beraz adizki jokatuak Konp⁰-ra igo behar da buru horretan [Q] tasuna duen osagai isilak Part⁰-Denb⁰ buru konplexuak duen [*uQ**] ezaugarria erka dezan. Azkenik, *al* partikulak ez du Denb⁰-ren bete-behar lexikoa asetzen, horrenbestez, o-komandopean duen buru lexikal gertuena erakartzen du, i.e. kasu honetan a⁰ mugitzen da Konp⁰-ra, [a⁰ [[Denb⁰- Part⁰]]] osagaia osatuta:



Beraz, azterbide horrek aditz jokatuaren eta partikularen arteko erlazioa azaltzen du, baita partikulak perpaus osoa besarkatzeko beharra ere.

Bigarrenez, *al* partikula mendeko perpausetan agertzen deneko testuingurua aztertuko dut; horretarako (41) adibidea hartuko dut abiapuntu. Perpaus osoa arakatu gabe, mendeko perpausko osagaietara mugatuko naiz. Zehar-galdera denez, *-(e)n* menderagailua Jok⁰-n sortzen da (Ortiz de Urbina, 2008); horrek ez du oztopatzen *al* partikula Part⁰-n agertzea:

(41) Galdetu diot ea lentejak gustatzen al zaizkion.

(42) [... [IndS [Ind ea]] [JokS [PartS [DenbS [aS [XS lentejak]] [a gustatzen]]] [Denb zaizkio]]] [Part al]] [Jok -(e)n]]]

Horrenbestez, osagaikako banaketan agerian geratzen denez, *al* partikula eta menderagailua bateragarriak dira, Part⁰-n eta Jok⁰-n kokatuta hurrenez hurren.

Azkenik, gainerako partikulekiko bateraezintasunari azterbide honek azalbidea ematen diola erakusteko (43) adibidea erabiliko dut. Kasu honetan *ote* partikula Partikula

Sintagmako buru-gunean kokatu dudanez, *al* partikula, esaterako, ezingo litzateke agertu, gune bera okupatzen dutelako³³:

(43) Izan ote da euskal eskolarik pinturan? (MEIG apud De Rijk, 2008)

(44) [_{KompS} [_{Komp} Ø_Q] [_{PartS} [_{DenbS} [_{aS} [_{XS} euskal eskolarik pinturan] [_a izan]]] [_{Denb} da]]] [_{Part} ote (*al)]]]]

Honaino erdialdeko partikularen gaineko azpiatala, hurrengo azpiatalean ekialdeko partikula aztertzeari ekingo diot bere kokagunea argudiatuz eta, ondoren, azterbidea testatuz.

6.3. Ekialdeko *-a* galdera partikularen hipotesi berrirantz

Ekialdeko partikula, arestian esan dudanez, Jokatusun buruan sortzen delako argudioak eman ditut³⁴. Kokapen hori hartzeko arrazoiak hurrengo lerroetan mahaigaineratuko ditut. Hasteko, mendeko perpausetan agertzeko murriztapena eta *ote* partikularekin bateragarria izatea *-a* partikula Jok⁰-n kokatuz azal daitezke.

Bigarrenez, Haddicanen (2008) analisiari jarraituta, partikulek perpaus osoa o-komandatzan dute. Ondorioz, Denbora Sintagmaren eta Ezeztapen Sintagmaren gainean kokatu beharko litzateke *-a* partikula biltzen duen sintagma.

Hirugarrenez, bigarren atalean zerrendatutako hizkuntzalari gehienek partikulak ezker periferian kokatzen dituztela adierazi dut. Tipologikoki partikula horiek perpaus mota zehazten duen buruan kokatu ohi dira, i.e. Indar Sintagman. Gainera, inguruko hizkuntzetan menderagailuei ere gune hori esleitzen zaie. Aitzitik, euskarazko ordainak Jokatusun Sintagman kokatzen direla proposatzen du Ortiz de Urbinak (2008). Ondorioz, *-a* partikula Jokatusun Sintagman ezartzeak zentzuzkoa dirudi.

Laugarrenez, euskaraz partikulak aditz jokatuarekin bat egiten du; italieraz, ordea, perpaus jokatugabeetan ere *se* ager daiteke. Irlandarak ere bat egitearen aldeko ebidentzia dakar, aditza kopulatiboa denean, bera galdera partikularekin batzen delako (McCloskey, 2005, 160. or.):

(45) *An cosúil le taibhse é?*

G.KOP bezala SOZ mamu 3SG.MSK.AK

'Bada mamua bezalakoa?'

33 Egia esan, partikula horien arteko bateraezintasuna sintaktikoa edo pragmatikoa izan liteke; ohiko jokabideetik abiatuta, ez legoke bataren edo bestearen aldeko argudiorik. Hala ere, Monfortek (2020) *ahal* eta *ote* partikulak dituen adibideak dakartza; horrelako kasuetan *ote*-k ez du X⁰ izaerarik, XS baizik. Horretan oinarrituz argudiatzen du *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* partikulak ez direla euren artean bateragarriak gune bera okupatzen baitute; haatik, *al* galdera partikularen garapen historikoa aintzat hartuta, partikula horren eta besteen arteko bateraezintasuna pragmatikari leporatzen dio.

34 Konplementatzaile Sintagma zabaltzeko arrazoirik ez dagoenean, Komp⁰-n kokatuko da *-a* partikula.

Bestalde, honekin lotuta, ekialdeko partikula Indar Sintagman kokatuz gero, ‘BIHAR jinen hiza?’ bezalako perpausen eratorbidea zailagoa da azaltzeko, aditz jokatua Fok⁰-n geldituko litzatekeelako eta *-a* partikula, ordea, Indar buruan legokeelako. Egoera hau konpontzeko, arau morfonologiko bat *ad hoc* proposatu beharko litzateke. Aitzitik, Jok⁰-n kokatuz gero, Inf⁰-k berarekin batera garraiotuko luke Fok⁰-raino.

Azkenik, egun indarrean ez dagoen bestelako erabilera bat ere hartuko dut kontuan; (46a) adibidean *-a* partikularekin azaltzen den osagaia fokalizatuta dagoela ematen du, hots, *NIK-a*. Beraz, *-a* partikula JokS-n kokatuta eta sintagma honen azpitik dagoena isilduz, fokua eta partikulak bat egiten dute:

- (46) a. Nika? (Euskaltzaindia, 1987, 500. or.)
 b. [... [IndS [Ind] [FokS Niki [Fok' [Fok] [JokS [DenbS t_i [Denb' [a⁰ egin]]] [Denb' dut]]] [Jok' -a]]]]]


Datu horietan oinarrituta, *-a* partikula gainerako partikuletatik bereizi eta Jok⁰ (/Konp⁰) gunea esleitzea erabaki dut.

6.3.1. Ekialdeko partikuladun galderen eratorbide berria

Aurreko puntuan *-a*-ren kokapena justifikatu dut. Oraingoan 6.2. azpiatalean erabilitako testuinguruei begiratu eta adibideak erabiliz behar diren eratorbideak eta urratsak emango ditut aditzera. Hasteko, baiezko polaritatezko galdera eratorriko dut:

- (47) Nahi'uka borroka? (Etxamendi, 2010, 74-75. or.)

Berriro Adgerren (2003) ildotik, euskaraz aditz jokatuak [*uperpausmota*: *] tasuna daukala onartzen dut, Konp⁰-k (edo Jok⁰-k, ezker periferia zabalduz gero) balioztatu eta erakartzen duena. Beraz, hasteko, Denb⁰-k [*uperpausmota**] tasuna du eta, kasu honetan, Konp buruan [Q] tasuna duen *-a* partikula dago. Konp⁰-k Denb⁰-ren perpaus mota tasuna balioztatzen du eta, berau ahula denez, tasunak erkatzeko Konp⁰-ra igotzen da. Ondoren, *-a* partikulak Denb⁰-ren betebeharrak lexikoa asetzen ez duenez, o-komandopean duen buru lexikal gertuena erakartzen du, hots a⁰, eta [a⁰ [Denb⁰-Jok⁰]] osagaia eratzen da:



Eratorpen horretan partikularen eta aditz jokatuaren arteko harremana islatzen da; halaber, *-a* partikulak perpaus osoa besarkatzen du.

Bigarren testuingurua *-a* partikulak duen ezaugarri bereizgarria da; artikulua honetan aztergai diren partikula bat baino gehiago perpaus berean erabil daitekeeneko alegia (49). Polaritatezko galdera denez eta fokua egoteak KonpS zabaltzea eragiten duenez, izaera hori markatzen duen morfema, i.e. *-a* partikula, buru-azkena den Jok⁰-n sortzen da. Honez gain, *ote* partikula epistemikoa Part⁰-n kokatzen dut. Beraz, honako osagai-banaketa lortzen dut:

- (49) a. JONEK ote dia erran? (Behauze)
 b. [_{JokS} [_{PartS} [_{DenbS} [_{aS} [_{DS} JONEK] [_a erran]]] [_{Denb} du]] [_{Part} ote]] [_{Jok} -a]]

Eskemak islatzen duenez, *ote* eta *-a* aldi berean agertzea ahalbidetzen du banaketa horrek.

Azkenik, aurretik (§4.1.2.) esan dudanez, ekialdeko partikula eta menderagailuak banaketa osagarrian daude. Bateraезintасun horren berri (50) adibidearen bidez eman-got dut. Zehar-galdera denez, *-(e)n(etz)* menderagailua Jok⁰-n³⁵ sortzen da. Gune hori hutsik ez dagoenez, ezin da *-a* partikula agertu:

- (50) a. Ez dakit jinen den(etz) (Lafitte, 1944, 447. or.)
 b. [... [_{IndS} [_{Ind}] [_{JokS} [_{DenbS} [_{aS} [_a jinen]]] [_{Denb} da]]] [_{Jok} -(e)netz (*-a)]]]]

Aitzitik, Part⁰-n sortuko balitz, ez legoke *-(e)n(etz)* menderagailuarekin agertzeko oztoporik.

Beraz, azpiatal horretan zehar erakutsi dudан bezala, azterketa honek *-a*-ren ezaugarri bereizgarriei azalpena ematen die.

7. ONDORIOAK

Ikerlan honetan zehar euskaraz bai/ezko galderetan agertzen diren bi partikula aztertu ditut, ekialdeko *-a* eta erdialdeko *al*. Horretarako hizkuntzarteko datuetara jot dut eta galdera partikulen eta partikula modalen honako ezaugarriak nabarmenduko nituzke: a) ezker periferian eta erdiko eremuan kokatuak izaten dira; b) partikula bat baino gehiago ager daitezke; c) ez dira nahitaezkoak; eta d) euren erabilera pragmatikoa izaten da. Abiapuntu horretatik euskarazko galdera partikulak aztertzeari ekin diot eta ondorioztatu dut desberdin jokatzen dutela hurrengo ezaugarrietan oinarrituz: a) erabiltzen direneko perpaus motak ez datoz guztiz bat; b) perpaus mailan osagai banaketa desberdina dute; c) *-a* partikula *ote*-rekin bateragarria da, *al* ez bezala; d) *-a* ezin da mendeko perpausetan agertu, gainerako partikulak ez bezala; eta, azkenik, e) DenbS-ren elipsiaren ondorioz jokabide desberdina dute. Horrenbestez, kokapen desberdinak esleitu dizkiet (Coniglio & Zegrean, 2012; Haegeman, 2014; Paul, 2014):

35 Ikus Rebuschi (2013) beste azterketa baterako: *-(e)n* menderagailua Jok⁰-n kokatzen badu ere, *-etz* morfema Foku Sintagmaren buruaren gauzapena litzateke.

ekialdeko partikula Jokatusun buruan sorten dela proposatu dut (edo Konplementatzaile buruan, KonpS zabaltzen ez bada); erdialdeko partikula, aldiz, Jokatusun Sintagmaren eta Denbora Sintagmaren artean dagoen Partikula Sintagman kokatzen dela, *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* partikulak bezala.

8. ERREFERENTZIAK

- Adger, D. (2003). *Core syntax: A minimalist approach*. Oxford: Oxford University Press.
- Albizu, P. (1991). *Sobre la existencia del movimiento largo de núcleos en euskera*. Argitaratu gabeko eskuizkribua.
- Arregi, K. & Nevins, A. (2012). *Morphotactics: Basque auxiliaries and the structure of spellout*. Dordrecht & New York: Springer.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I. & Iglesias, A. (2011). Corpus based prosodic variation in Basque: Y/N questions marked with the particle *al*. *Estudios de Fonética Experimental*, 20, 11-31.
- Azkue, R. M. (1969). *Morfología vasca*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Azurmendi, J. M. (1996). *Ataungo euskara*. Lazkao: Goiherriko euskal eskola kultur elkarte.
- Bailey, L. R. (2013). *The syntax of question particles* (doktore tesia). Newcastle University, Newcastle.
- Bayer, J. & Obenauer, H.-G. (2011). Discourse particles, clause structure, and question types. *Linguistic Review*, 28(4), 449-491. DOI: <http://dx.doi.org/10.1515/tlir.2011.013>
- Bayer, J. & Trotzke, A. (2015). The derivation and interpretation of left peripheral discourse particles. In J. Bayer, R. Hinterhölz & A. Trotzke (arg.), *Discourse-oriented syntax* (13-40. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. DOI: <https://doi.org/10.1075/la.226.02bay>
- Camino, I. (2009). Mugako hitzun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zuberoan. *Fontes Linguae Vasconum*, 111, 153-218.
- Cardinaletti, A. (2011). German and Italian modal particles and clause structure. *The Linguistic Review*, 28(4), 493-531. DOI: <https://doi.org/10.1515/tlir.2011.014>
- Chen, Z. (2019). *Three ingredients in Wuhu Chinese yes-no Question Formation* (master amaierako lana). University of California Los Angeles, Los Angeles.
- Cheng, L. L. S. (1997). *On the typology of wh-questions* (argitaratu gabeko doktore tesia). Massachusetts Institute of Technology, Cambridge.
- Cinque, G. (1999). *Adverbs and the universal hierarchy of functional projections*. New York: Oxford University Press.
- Coniglio M. & Zegrean, I. (2012). Splitting up Force, evidence from discourse particles. In L. Aelbrecht (arg.), *Main clause phenomena: New horizons* (229-256. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. DOI: <https://doi.org/10.1075/la.190.10con>
- Coyos, J.-B. (2013). *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri: Gure Herria aldizkariaren idazleak (1924-1939)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- De Rijk, R. (1969). Is Basque an SOV language? *Fontes Linguae Vasconum*, 3, 319-352.

- De Rijk, R. (2008). *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge: Massachusetts Institute of Technology Press.
- EHUko Euskara Institutua. (2009). *Ereduzko prosa gaur*. <https://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/helbidetik/eskuratua>.
- Elordieta, A. (2001). *Verb movement and constituent permutation in Basque* (argitaratu gabeko doktore-tesia). Leiden Unibertsitatea, LOT, Utrecht.
- Elordieta, A. & Haddican, B. (2018). Truncation feeds intervention. *Natural Language & Linguistic Theory*, 36(2), 403-443. DOI: <https://doi.org/10.1007/s11049-017-9381-0>
- Elordieta, G. (1997). *Morphosyntactic feature chains and phonological domains* (argitaratu gabeko doktore-tesia). University of Southern California, Los Angeles.
- Epelde, I. (2003). *Larresoroko euskara* (argitaratu gabeko doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Etxamendi, E. (2010). *Idazlanen bilduma. Eñaut Etxamendi*. Baiona: Maiatz.
- Etxepare, R. (2010). Omen bariazioan. In B. Fernández, P. Albizu & R. Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai* (ASJuren gehigarriak, 52) (85-112. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Etxepare, R. & Uria, L. (2016). Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (265-288. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. DOI: <https://doi.org/10.1075/lfab.13.10etx>
- Euskaltzaindia. (1985). *Euskal gramatika. Lehen urratsak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1987). *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ginsburg, J. R. (2009). *Interrogative features* (argitaratu gabeko doktore-tesia). University of Arizona, Tucson.
- Goenaga, P. (2009). Hauta-galderez. *ASJU*, 43(1-2), 381-403.
- Grosz, P. (2005). *dn in Viennese German: The syntax of a clitic version of the discourse particle denn* (master amaierako lana). University of Vienna, Viena.
- Gutzmann, D. (2015). *Use-conditional meaning: Studies in multidimensional semantics*. Oxford: Oxford University Press.
- Hack, F. M. (2014). The particle *po* in the varieties of Dolomitic Ladin—Grammaticalisation from a temporal adverb into an interrogative marker. *Studia Linguistica*, 68(1), 49-76. DOI: <https://doi.org/10.1111/stul.12022>
- Haddican, B. (2008). Euskal perpausaren oinarriko espez-buru-osagarri hurrenkaren aldeko argudio batzuk. In I. Arteatx, X. Artiagoitia, & A. Elordieta (arg.), *Antisimetriaren hipotesia vs. Buru parametroa: Euskararen oinarriko hurrenkera ezbaian* (65-92. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Haegeman, L. (2014). West Flemish verb-based discourse markers and the articulation of the speech act layer. *Studia Linguistica*, 68(1), 116-139. DOI: <https://doi.org/10.1111/stul.12023>
- Heim, J., Keupdjio, H., Lam, Z., Osa-Gómez, A. & Wiltschko, M. (2014). How to do things with particles. In L. Teddman (arg.), *Proceedings of the 2014 annual conference of the Canadian Linguistic Association* (e1-e15. or.). St. Catharines: Brock University.
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (2003). *A grammar of Basque*. Berlin & Boston: De Gruyter Mouton.

- Kuong, I.-K. J. (2008). Yes/no question particles revisited: The grammatical functions of mo4, me1, and maa3. In M. Chang (arg.), *The 20th North American Conference on Chinese Linguistics (NACCL-20)* (715-733. or.). Columbus, Ohio: The Ohio State University.
- Kuwabara, K. (2013). Peripheral effects in Japanese questions and the fine structure of CP. *Lingua*, 126, 92-119. DOI: <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2012.12.004>
- Lafitte, P. (1944). *Grammaire basque: (Navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Le Livre.
- Laka, I. (1991). Sentence negation in Basque. In Joseba A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum* (ASJuren gehigarriak, 14) (899-926. or.). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Li, B. (2006). *Chinese final particles and the syntax of the periphery* (argitaratu gabeko doktore-tesia). LOT, Utrecht.
- Lizardi-Ituarte, A. (2017). *A neoperformative analysis of al and ba as discourse particles: a view from Mutriku Basque* (master amaierako lana). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Lizardi-Ituarte, A. (2019). *Basque outer particles: A semantic and syntactic analysis for e**. Argitaratu gabeko eskuizkribua.
- Lusini, S. (2013). *Yes-no question/marking in Italian dialects: A typological, theoretical and experimental approach* (argitaratu gabeko doktore-tesia). LOT, Utrecht.
- McCloskey, J. (2005). *A note on predicates and heads in Irish clausal syntax*. In A. Carnie (arg.), *Verb first: On the syntax of verb-initial languages* (155-174. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. DOI: <https://doi.org/10.1075/la.73.12mcc>
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (2017). *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Monforte, S. (2015). *Galdera partikulak euskaraz* (master amaierako lana). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Monforte, S. (2018). About the particle *al* in Basque. In M. Díaz-Ferro, J. Diz-Ferreira, A. Pérez-Pérez & A. Varela-Suárez (arg.). *Novas perspectivas na lingüística aplicada* (19-31. or.). Vigo: Axac.
- Monforte, S. (2019). What microvariation can show us: An analysis of Basque DP *ote*. In J. Bayer & Y. Viesel (arg.), *Proceedings of the workshop «Clause typing and the syntax-to-discourse relation in head-final languages»* (175-191. or.). Konstanz: Fachbereich Linguistik der Universität Konstanz.
- Monforte, S. (2020). *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz. Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa* (argitaratu gabeko doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Ortiz de Urbina, J. (1989). *Parameters in the grammar of Basque: A GB approach to Basque syntax*. Dordrecht: Foris. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110876741>
- Ortiz de Urbina, J. (1993a). Checking domains in Basque and Breton. *ASJU*, 27(3), 751-775.
- Ortiz de Urbina, J. (1993b). Feature Percolation and Clausal Pied-Piping. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics* (189-219. or.). Amsterdam: John Benjamins Publishing Company. DOI: <https://doi.org/10.1075/cilt.105.08urb>
- Ortiz de Urbina, J. (2008). Indar Sintagmak, Foku Sintagmak eta ezkeraldeko buruak euskaraz. In I. Arteatx, X. Artiagoitia & A. Elordieta (arg.),

- Antisimetriaren hipotesia vs. buru parametroa: Euskararen oinarrizko hurrenkera ezbaian* (51-67. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Paul, W. (2014). Why particles are not particular: Sentence-final particles in Chinese as heads of a split CP. *Studia Linguistica*, 68(1), 77-115. DOI: <https://doi.org/10.1111/stul.12020>
- Peillen, T. (1986). *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak*. Donostia: Haranburu.
- Potts, C. (2005). *The logic of conventional implicatures*. Oxford & New York: Oxford University Press.
- Prieto, P. & Rigau, G. (2007). The syntax-prosody interface: Catalan interrogative sentences headed by *que*. *Journal of Portuguese Linguistics*, 6(2), 29-59. DOI: <https://doi.org/10.5334/jpl.139>
- Rebuschi, G. (2013). On embedded interrogatives and related constructions in Northern Basque. In C. Bodelot, H. Gruet-Skrabalova & F. Trouilleux (arg.), *Morphologie, syntaxe et sémantique des subordonnants* (209-224. or.). Clermont-Ferrand: Presses universitaires Blaise Pascal.
- Rivero, M.-L. (1993). Bulgarian and Serbo-Croatian Yes-No questions: V⁰-raising to *-li* versus *-li* hopping. *Linguistic inquiry*, 24(3), 567-575.
- Rizzi, L. (1997). The fine structure of the left periphery. In L. Haegeman (arg.), *Elements of grammar: Handbook of generative syntax* (281-337. or.). Dordrecht: Springer.
- Rizzi, L. (2001). On the position «Int(errogative)» in the left periphery of the clause. In G. Cinque & G. Salvi (arg.), *Current studies in Italian syntax: Essays offered to Lorenzo Renzi* (287-296. or.). Amsterdam: Elsevier.
- Salaberri Zaratiegi, P. (2000). Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan. In K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak* (223-262. or.). Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Salaberry, E. (1958). Zapeta Urhe eta Espartin Churi. *Euzko-gogoa*, 9(2), 133-168. or.
- Santazilia, E. (2009). Luzaideko hizkuntz bariazioa. *Fontes Linguae Vasconum*, 111, 219-248.
- Scherf, N. (2017). The syntax of Swedish modal particles. In J. Bayer & V. Struckmeier (arg.), *Discourse particles: Formal approaches to their syntax and semantics* (78-99. or.). Berlin & Boston: De Gruyter. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110497151-004>
- Soroa, M. (1885). *Alcate-berriya: Jostaketa Euskerara Moldatuba Gizon Bacarrentzat*. Donostia: Pozoren Moldizkira.
- Suñer, M. (1993). About indirect questions and semi-questions. *Linguistics and Philosophy*, 16(1), 45-77. DOI: <https://dx.doi.org/10.1007/BF00984722>
- Txurruka, A. & Urbietta, J. (2003). *Debako euskara*. Deba: Ostolaza Kultur Etxea.
- Wiltschko, M. (2017). Ergative constellations in the structure of speech acts. In J. Coon (arg.), *The Oxford handbook of ergativity* (419-446. or.). New York: Oxford University Press. DOI: <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780198739371.013.18>
- Xiang, X. (2012). External information processing versus property ascertaining: A discourse-pragmatic study of three yes/no question particles in Shishan (Hainan Island, China). *Text & Talk*, 32(2), 255-280. DOI: <https://doi.org/10.1515/text-2012-0013>
- Zuazo, K. (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkarlanean.